



Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Ingenieria Sin Fronteras



Mintegiaren proposamen politiko pedagogikoa

Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio
Ekosozialerako Teknologia

2023-2024 ikasturtea

Mintegiaren proposamen politiko pedagogikoa

Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio
Ekosozialerako Teknologiak

2023-2024 ikasturtea

IDAZLE-TALDEA:

Pepe Ruiz Osoro
Arrate Zelaia Eizaguirre

ARGITARATZAILEA:

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)

info.bilbao@euskadi.isf.es

www.euskadi.isf.es

CIF/IFK: G-48699045

FINANTZATZAILEA:



ITZULTZAILEA:

Arrate Zelaia Eizaguirre

MAKETATZAILEA:

Binari Comunicación

Bilbo, 2023



Creative Commons 4.0 lizentzia

Agiri honek Creative Commons lizentzia dauka. Hortaz, lan hau aske kopiatu, hedatu eta argitaratu daiteke, egileak aipatzen badira eta salerosketarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu edo eraldatu, ezta lan honetan oinarritutako beste lanik sortu ere.

Lizentziaren eduki osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Mintegiaren proposamen politiko pedagogikoa

Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologia

2023-2024 ikasturtea

Gizartea eraldatzeko eta pentsamendu kritikorako interesa duten esparru zientifiko-teknologikoko pertsonentzat prestakuntza-proposamena.

- **Parte hartzaile kopurua:** 15
- **Iraupena:** 3 hilabete
- **Dedikazioa guztira:** 75 ordu (hautazko 3 ECTS kredituren baliokidea)
 - 28 ordu presentzial (16 aurrez aurrekoak eta 12 online), online bidezko 12 talde lan ordu eta 35h banakako lan ez-presentzial.
- **Ikastaroaren hizkuntza:** gaztelera eta euskara (erraztasunak emango dira ulermen arazoak dituztenentzat)
- **Formatua:** online (txangoak presentzial)

Irakasle taldea: Bizkaiko jendarte zibileko eta lankidetzako erakundeetako hainbat ordezkariak parte hartuko dute.

Aurkezpena

Aurten, berriz ere, **Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiei** buruzko mintegia antolatu dugu, XXIV. edizioan gaude jada.

Saioen bitartez, Trantsizio Ekosozialerako eta Garapenerako Lankidetzari buruzko oinarrizko elementuak ematea da mintegiaren planteamendua eta, aldi berean, eremu lokalean eta globalean dauden desberdintasunen panoramari buruzko kontzientzia kritikoa sustatzea.

Hori lortzeko, mintegian unibertsitate-eremuko, Bizkaiko jendarte zibileko erakunde eta kolektiboen ordezkariak, nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuneko espazioetan parte hartzen duten hainbat ordezkari parte hartuko dute, **parte hartze-ko eta eztabaidatzeko** metodologiak dituzten saioak planteatuz.

Ikastaroa **garapenerako lankidetzarekin lotutako oinarrizko ezagutzak eskuratzeko interesa duten edozein pertsoneri zuzenduta** dago, eta karrera zientifikoetako ikasleentzat interes berezikoak diren saioak eskainiko ditu, baldin eta Gradu edo Master Amaierako Lana Giza Eraldaketarekin lotutako arloetan egin nahi badute.

XXIV. edizioa 2023ko azken hiruhilekoan egingo da, **urriaren 6tik abenduaren 15ra**, ostiral guztietako arratsaldeetan. Saio horiez gain, ibilbide ekologiko bat egingo da Artxandan zehar, Trantsizio Ekosozialerako Teknologien sesio praktikoa bat eta ekonomia sozial eta solidarioko beste ibilbide bat Bilbon zehar, jardunaldietan landutako zenbait gai sakontzeko eta integratzeko.

AURKIBIDEA

Helburuak	6
------------------	---

Irakaskuntza plan hau honako atal hauetan dago egituratuta:

1. Edukiak	9
-------------------	---

2. Gaitasunak	10
----------------------	----

3. Lan metodologia	11
---------------------------	----

4. Programazioa	12
------------------------	----

5. Ebaluazioa eta ziurtapena	14
-------------------------------------	----

Bibliografia	16
---------------------	----

Estekak	17
----------------	----

Helburuak

Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiei (TET) buruzko mintegiaren programa hiru helburu espezifikorik erantzunez eraiki da. Helburu horiek betetzen direla bermatzeko, hiru ildo pedagogiko hartu dira abiapuntutzat, ikastaroa osatzen duten saioetan tartekatzen direnak.

Hona hemen ildo pedagogikoak:

1. *ildoak Garapena, Lankidetzeta eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologiak*
2. *ildoak Pentsamendu kritikoa*
3. *ildoak beste mundu posible batzuetarako alternatibak*

Ondoren, ildoei lotutako helburuak aurkezten dira:

1. Helburua: Gogoeta egitea zientziak eta teknologiak garapen eta lankidetzeta emantzipatzailerako izan dezaketen eginkizunari buruz

Ikastaroko saio gehien ardatz nagusiek mintegikoari izena ematen dioten hiru kontzeptuekin egiten dute bat. Abiapuntuko egoera baten aurrean, non ingeniari-tzako graduen programa akademikoek zientziaren eta teknologiaren gizarte- eta ingurumen-eginkizuna ikusezin bihurtzen duten, prestakuntza- eta elkarriketa-espazio bat proposatzen dugu, zientziak eta teknologiak garapenean eta lankidetzan duten eginkizunari buruz gogoeta egin ahal izateko.

Zientzia eta teknologiarekiko kontzientzia kritikoa eraikitzea da erronka, tratamendu sozia konbentzionalak ematen dien neutraltasuna kolokan jarritz. Zein zientzia, zein garapen, zertarako lankidetzeta.

Horretarako, Trantsizio Ekosoziala eta Garapenerako Lankidetzari buruzko oinarriko nozio batzuk eskainiko dira eta jasangarritasunerantz modu kritikoa hurbiltzeko gonbita egingo da.

Helburu hori lortzera bideratutako saioak honako hauek dira:

- Garapenaren teoriak: giza garapenaren hastapenetaraino bidaia
- Nazioarteko elkartasuna: estrategiak, borrokak eta erresistentziak
- Pobreziaren eta desberdintasun egituren oinarriak mundu globalizatu batean

- Trantsizio Ekosozialerako Teknologia I
- Trantsizio Ekosozialerako Teknologia II: Ura eta Saneamendurako Giza Eskubidea indartzeko sistemak

2. Helburua: 1.go helburuko planteamenduak aberastea pentsamendu kritikoaren korrante desberdinek eskaintzen dizkiguten ekarpenekin, hainbat diskurtso antisistemikotik problematikak ikusaraziz eta proposamenak eginez

Feminismoak, ekologismo soziala, sexu- eta genero-aniztasuna, pentsamendu dekoloniala... proposamen politikoak, pentsamendu akademikoa eta gizarte-aktibismoa dira, bizi dugun errealitatearen konplexutasunari erantzute laguntzen digutenak. Ezin dugu egungo sistemari alternatibak eraikitzeko asmorik izan, pentsamendu kritikoaren korrante hauek eskaintzen dizkiguten ekarpenez ahaztuta. Horregatik, nagusi den paradigma zalantzan jarriko duten eta deseraiki behar ditugun botere/zapalkuntza harreman batzuk adieraziko dituzten espazioak eskaintzearen aldeko apustua egiten dugu.

Pentsamendu kritikoaren korrante horietara hurbiltzen lagunduko diguten saioak honako hauek dira:

- Giza Eraldaketarako Hezkuntza (pedagogia alternatiboak)
- Feminismoek ekonomiari egindako ekarpenak: ikusezina plazaratuz
- Generoa eta sexu-aniztasuna
- Sistema hegemonikoaren mugak. Interdependentziak eta ekodependentziak
- Gizarte-eraldaketaren zerbitzurako partaidetza-prozesuak

3. Helburua. Eraldaketa soziopolitikorako espazioak eraikitzen ari diren esperientziak ikusaraztea, herritar kritiko eta aktibo gisa dugun eginkizunari interpelazioa eginez

Diagnostiko kritikoa egiten ez badugu dagoeneko martxan dauden alternatibak ikusarazteko apustu sendoa egin gabe, ezkortasun geldiarazle batean murgiltzeko arriskua izango dugu. Horregatik, ildo honetan, ikasturtean aztertutako esparruetan itxaropen- eta eraldaketa-espazioak daudela erakusten ari diren kolektiboen eta ekimenen arteko azterketa eta elkarrizketa sustatuko da.

Burujabetzak eraikitzetik (teknologikoa, energetikoa, elikagaiena eta urarena) Ekonomia Sozial eta Solidarioaren alternatibetara hurbiltzera, sustatzaileekin harreman zuzena izatea sustatuko da, aldaketarako subjektu aktibo gisa onar gaitzeen bultzatuz.

Honako saio hauetan landu ahal izango da ikuspegi hori:

- TETei lotutako lankidetzeta-proiektuen kasu praktikoak
- Bioeraikuntza eta permakultura: Anamnese proiektua eta Amaore ogi lantegia
- Burujabetza teknologikoa
- Burujabetza energetikoa
- Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren Ibilbidea
- Gizarte Eraldaketarako Gradu/Master Amaierako Lanak
- Ingurumena eta jasangarritasuna: Ibilbide ekologikoa Artxandatik



1. Edukiak

Azaldu bezala, ikastaroaren edukiak hiru modulu tematikotan banatua daude azaldutako ildoetara jarraiki. Ondoren, ikastaroaren mintegiak eta ildoak aurkezten dira.

Ikastaroaren edukiak

1.º ildoak: Garapena, Lankidetzaren eta Trantsizio Ekosozialerako Teknologia

- 1.1 Garapenaren teoriak: giza garapenaren hastapenetaraino bidaia
- 1.2 Nazioarteko elkartasuna: estrategiak, borroak eta erresistentziak
- 1.3 Pobreziaren eta desberdintasun egituren oinarriak mundu globalizatu batean
- 1.4 Trantsizio Ekosozialerako Teknologia (TET) I
- 1.5 Trantsizio Ekosozialerako Teknologia II: Ura eta Saneamendurako Giza Eskubidea indartzeko sistemak

2. ildoak: Pentsamendu kritikoak

- 2.1 Giza Eraldaketarako Hezkuntza (pedagogia alternatiboak)
- 2.2 Feminismoek ekonomiari egindako ekarpenak: ikusezina plazaratuz
- 2.3 Generoa eta sexu-aniztasuna
- 2.4 Sistema hegemonikoaren mugak. Interdependentsiak eta ekodependentsiak
- 2.5 Gizarte-eraldaketaren zerbitzurako partaidetza-prozesuak

3. ildoak: beste mundu posible batzuetarako alternatibak

- 3.1 TET-ei lotutako lankidetzaren proiektuen kasu praktikoak
- 3.2 Bioeraikuntza eta permakultura: Anamnese proiektua eta Amaore ogi lantegia
- 3.3 Burujabetza teknologikoa
- 3.4 Burujabetza energetikoa
- 3.5 Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren Ibilbidea
- 3.6 Gizarte Eraldaketarako Gradu Amaierako Lanak
- 3.7 Ingurumena eta Jasangarritasuna: Ibilbide ekologikoa Artxandatik

2. Gaitasunak

Ikastaroan zehar ondorengo gaitasunak landuko dira:

1. Garapen kontzeptuaren bilakaera eta egun bere baitan dauden eztabaiden ezagutza.
2. Nazioarteko Lankidetzara hurbiltzea, agente emantzipatzaile gisa. Honez gain, mundu globalizatu bateko desberdintasunen egitura ezagututa, ikuspegi global batekin jasangarritasuna lortzeko Nazioarteko Elkartasuneko prozesuekin duen harremana lagungarria izan daitekeela ulertzea.
3. TET kontzeptuari hurbilketa oinarrizko 3 zutabeetatik: eskubideen betetze eta aldarrikapena, ingurumen-jasangarritasuna eta ikuspegi feminista eta aniztasun sexoafektiboa.
4. Aldaketa sozialarekin bat datozen ikuspegi kritiko batzuen oinarriak ezagutzea, Trantsizio Ekosozialerako Teknologien azterketa eta bultzada sustatzeko.
5. Gizarte jasangarri, bidezko eta integratzaileagoak eraikitzen laguntzen duten eta TETetatik sustatuak diren alternatiba praktikoetara hurbiltzea.

3. Lan metodologia

Gure ikaskuntza-prozesuetan subjektu aktibo gisa onartzen gaituzten metodologia parte-hartzaileen aldeko apustua egiten dugu. Gure ustez, garrantzitsua da klase magistraletik ateratzen diren formatuekin esperimintatzea. Klase formal horiek *banku-hezkuntzako* eredu bati lotuagoak egonik bertatik aldendu nahi dugulako.

Taldearen aurretiko ezagutzak ezagutzeko espazioak irekitzea, edukiak bizitako esperientziekin edo hurbileko errealitateekin lotzeko, elkarrekin eraikitze elkarriketak egiteko... noranzko bakarreko dinamiketarik irteteko aukera ematen digu, eta ikaskuntza esanguratsuak eta testuinguruan kokatutakoak lortzeko aukera ematen digu.

Jakin badakigu 1 edo 2 ordu ez dela denborarik egokiena ezagutzaren eraikuntza kolektiboko espazioak eskaintzeko, eta espazio birtualek konplexuagoa egin dezaketela metodologia parte-hartzaileen erabilera. Hala ere, parte-hartzea, hausnarketa kolektiboa eta entzute aktiboa protagonista nagusi izango diren metodologiak probatzeari ekiteko aukera bat izan daitekeela uste dugu.

Hizlarien arteko koordinazioa sendotzeko eta irakasleen eta ikasleen arteko harreman horizontalagoak eta eraldatzaileagoak eraikitze tresna batzuk eskaintzeko, mintegia hasi aurretik prestakuntza labur bat eskainiko zaie parte hartzen duten irakasleei. Gainera, online dinamiketarako tresna posibleak emango dira.

Aurten mintegia modu erdi-presentzian egingo da, hau da, saioak online (Jitsi plataformaren bidez) egingo dira eta, era berean, saio praktikoa bat, landa-irteera bat eta ibilbide bat bultzatuko ditugu.

Hori horrela, saio birtualak ordubetekoak izango dira eta **hurrengo astean zehar egiteko zereginen batekin osatzea proposatzen da.**

4. Programazioa

Ikastaroaren programazioa

Data	Presentzial / online	Ordua	Izenburua	Hizlaria	Erakundea
06/10/2023	Presentzial	16-18	Sarrera	Pepe Ruiz eta Arrate Zelaia	MGI - ISF
			Trantsizio Ekosozialerako Teknologia (TET)	Joseba Sainz de Murieta	ISF/MGI - UPV/EHU
		18-20	Gizarte-eraldaketaren zerbitzurako partaidetza-prozesuak	Cony Carranza	Munduko Emakumeak
20/10/2023	Online	17-18	Garapenaren teoriak: giza garapenaren hastapenentaraino bidaia	Iker Zirion	Hegoa Institutoa (UPV/EHU)
		18-19	Nazioarteko elkartasuna: estrategiak, borrokak eta erresistentziak	Flora Pozzobon	Amarantas Colectiva Feminista
Larunbata 21/10/23	Presentzial	Goizez	Ingurumena eta Jasangarritasuna: Ibilbide ekologikoa Artxandatik	Eduardo Renovales	Ekologistak Martxan
27/10/2023	Online	17-18	Pobrezia eta desberdintasunen egiturazko oinarriak mundu globalizatu batean	Quinndy Akeju	Comunidad Negra Africana y Afrodescendiente en España de Euskadi (CNAAE Euskadi) y Afrofeminas
		18-19	TETri lotutako lankidetzaproiektuen kasu praktikokoak	Cruz Velis (El Salvador)	ADES - Santa Marta

03/11/2023	Online	17-18	Feminismoetatik ekonomiari ekarpenak: ikusezina plazaratuz	Patricia eta Delia	REAS Ecosol-fem
		18-19	Generoa eta sexu-aniztasuna	Fernando Altamira	Incyde
10/11/2023	Online	17-18	Giza Eraldaketarako Hezkuntza (pedagogia alternatiboak)	Pepe Ruiz Osoro	MGI - ISF
		18-19	Gizarte Eraldaketarako Gradu / Master Amaierako Lanak	Nagore Cebrián	MGI - ISF
17/11/2023	Presentzial	16 - 20	Trantsizio Ekosozialerako Teknologiak II: Ura eta Saneamendurako Giza Eskubidea indartzeko sistemak	Thalía Sobrón	TADEH
24/11/2023	Online	17-18	Bioeraikuntza eta elikadura burujabetza: Anamnese proiektua eta Amaore ogiaren lantegia	Pedro Salgado	Anamnese
		18-19	Migrazioa eta interkulturalitatea	Carlos Regidor	Bilboko Udala
1/12/2023	Online	17-18	Burujabetza teknologikoa	Ondiz Zarraga	MGI - ISF
		18-19	Energia burujabetza	Energetikas - ISF	MGI - ISF
15/12/2023	Presentzial	16-18	Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren Ibilbidea	Hainbat	Hainbat
		18-20	Balorazioa eta itxiera	Pepe Ruiz eta Arrate Zelaia	MGI - ISF

5. Ebaluazioa eta ziurtapena

Saio aurretiko materialak (hautakoa):

Askotan, saio batek ia ez du behar adina denbora ematen landuko dugun gaiari buruzko edukiak eta oinarriko hausnarketak landu ahal izateko. Alde horretatik, saioaren aurreko eta ondorengo uneak aprobetxatzera animatu nahi zaituztegu, ikasgelan azaletik jorratu ahal izan diren gaietan sakontzea erraztuko duten materialak eta jarduerak taldeari partekatzen.

Astebete lehenago, egokitzen jotzen diren alde aurreko irakurketak edo jarduerak bidali daitezke, taldea saioan landuko duen gaiarekin harremanetan jar dadin.

Nahiz eta jakin badakigun beti dagoela alde aurreko materialak berrikusiko ez dituen jendea, gehiago ikertzeko eta eskaintzen diren erreferentzia batzuk berrikusteko interesa izango duten pertsonengan ere zentratzearen aldeko apustua egiten dugu. Jakitun izanik hautazkoa dela eta taldeko kide bakoitzaren borondatearen arabera dela, uste dugu puntu hau elikatzen duten materialek gure prestakuntza-proposamena aberasten lagunduko dutela.

Online Saio ondorengo lana (nahitaezkoa):

Gainera, online saio ostean, **taldean ikasgelatik kanpo jarduera bat egitea eskatzen da**, (zeregin hori baliagarria izan daiteke hautazko kredituak lortu nahi dituztenei orduak betetzen laguntzeko). Saio bakoitzeko hizlariak diseinatuko du lan hori.

Saio ondoko kronika (nahitaezkoa):

Saio bakoitzaren ondoren taldeko pertsona bat arduratuko da aurkezpenean hausnartutakoari buruzko kronika egiteaz. Proposamena ez da hitz egindakoaren

laburpen bat egitea, baizik eta ikasleak azal dezala zer sentiarazi dion, zer puntutan aurkitu dituen argudio berriak, zer ikaskuntza izan diren esanguratsuenak eta nola lotzen zaizkion eguneroko bizitzari. Helburua landutako gaia alderdi pertsonalagoekin nola lotzen den ikasleak azter dezala da. Bere jarrerak bila ditzala, horrela, bere subjektibotasuna ezagutza modu paregabe gisa baloratzuz.

Kronika ISF/MGIren web orrian argitaratuko da eta saioa eman duen hizlariari emango zaio. Mintegiaren lehengo sesioan, saioak eta ikasleak banatuko dira, kronika bakoitza nork egingo duen aldez aurretik jakin dezaten.

Kurtso bukaerako lana (nahitaezkoa):

Parte-hartzaile bakoitzak, klasera joateaz eta gaiei buruzko aldez aurreko informazioa irakurtzeaz gain, azken lana egin beharko du. Lanak ikastaroaren antolakuntzak ebaluatuko ditu. Gaiak irakasgaiekin zerikusia izango dute, gai askeak izan daitezke edo hizlariak proposatutakoak. Bakarka edo gehienez 3 pertsonako taldetan egiten ahalko da. Lan guztiak, onartu ondoren, MGIren blogera igo ahal izango direlarik.

Lanaren formatua hauetako bat izan daiteke:

- Bideoa: 3-4 min + Azalpena
- Testua: blog formatua, 1000 hitz gutxi gora behera
- Kartela: pdf formatuan + azalpena
- Argazkiak: 4-6 deskribapenekin + azalpena

Lanak aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 31a da

Prestakuntza gaindituz gero, UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenerako eta Transferentziako Errektoreordetzak, Garapenerako Lankidetzarako Bulegoaren birtartez, 3 ECTS kreditu onartzeko ziurtagiria emango du, graduako ikasketen aukerako kredituekin baliozkotu daitezkeenak. Hala ere, graduako ikasle bakoitza arduratuko da bere ikastetxean (Eskolan edo Fakultatean) kreditu horien baliozkotzea kontsultatzeaz eta kudeatzeaz.

Bibliografía

BENERÍA, Lourdes: *Género, desarrollo y globalización*. Editorial Hacer, Barcelona, 2005.

BERMEJO, Roberto: *Manual para una economía sostenible*. Los libros de la Catarata, Madrid, 2011.

CARPINTERO, Oscar y RIECHMANN, Jorge: *Pensar la transición enseñanzas y estrategias económico-ecológicas*. Revista de Economía Crítica, 16: 45-107, 2013.

DE SOUSA SANTOS, Boaventura: *Conocer desde el Sur*. CLACSO, CIDES-UMSA, PLURAL Editores, 2008.

EDDO-LODGE, Reni: *Por qué no hablo con blancos sobre racismo*. Ediciones Península, Barcelona, 2021.

FRASER, Nancy: *Las contradicciones del capital y los cuidados*. New Left Review, n.º 100: 111-32, 2016.

GARVEY, James: *La ética del cambio climático*. Proteus Ed., Cánoves i Samalús, 2010.

HANS, Jonas: *El Principio de Responsabilidad ensayo de una ética para la civilización tecnológica*. Herder, Barcelona, 1995.

HARVEY, David: *El nuevo imperialismo*. Akal, Madrid, 2004

HERRERO, Yayo; PASCUAL, Marta; GONZALEZ REYES María & GASCÓ Emma: *La vida en el centro: voces y relatos ecofeministas*. Libros en Acción, Madrid, 2019.

NUSSBAUM, Martha: *Las fronteras de la justicia. Consideraciones sobre la exclusión*. Paidós, Barcelona, 2007.

PEREZ OROZCO, Amaia: *Subversión feminista de la economía*. Sociología del trabajo, nº83, 2015.

PIKETTY, Thomas: *El capital en el siglo XXI*. Fondo de cultura económica de España. Madrid, 2014.

POGGE, Thomas: *La pobreza en el mundo y los derechos humanos*. Alianza, Madrid, 2005.

TURIEL, Antonio: *Petrocalipsis. Crisis energética global y cómo (no) la vamos a solucionar*. Alfabeto, Madrid, 2020.

WEIL, Simone: *Reflexiones sobre las causas de la libertad y de la opresión social*. Trotta, Barcelona, 2015.

ZABALO, Patxi: *¿El mundo en la disyuntiva entre desarrollo humano y globalización neoliberal?*, en Luis M^a Naya (coord.): *La educación para el desarrollo en un mundo globalizado*. Erein, Donostia, 2003.

Estekak

Agencia Internacional de la Energía: www.iea.org
ASPO (The Association for the Study of Peak Oil and gas): www.peakoil.net
Banco Mundial: www.bancomundial.org
Center for Advancement of the Steady State Economy: www.steadystate.org
Comisión Mundial de la Energía: www.worldenergy.org
Comparative Research Programme on Poverty <http://www.crop.org/>
Dpto. de Medio Ambiente del Gobierno Vasco:
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-579/eu/>
EUROSTAT: <http://www.europa.eu/eurostat>
EUSTAT: www.eustat.es
FAO, Organización de Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación:
www.fao.org
FMI, Fondo Monetario Internacional: www.imf.org
Front line defenders <https://www.frontlinedefenders.org/>
INE: www.ine.es
Life Cycle Initiative (UNEP): <https://www.lifecycleinitiative.org/>
ODG, Observatorio de la Deuda en la Globalización: www.odg.cat/es
OMAL, Observatorio de Multinacionales en América Latina: www.omal.info
OMC, Organización Mundial de Comercio: www.wto.org
ONU, Departamento de Asuntos Económicos y Sociales: World Economic and Social Survey: www.un.org/development/desa/es
OPEP, Organización de Países Exportadores de Petróleo: www.opec.org
OXFAM: www.oxfam.org/es
OCDE, Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico:
www.oecd.org
OIM, Organización Internacional para las migraciones: www.iom.int
PNUD, Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo: www.undp.org
PNUMA, Programa de Naciones Unidas para el Medio Ambiente:
<http://www.pnuma.org>
Pobreza crónica <https://www.chronicpoverty.org/>
Red del Tercer Mundo: www.redtercermundo.org.uy
UNCTAD, Conferencia de Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo:
www.unctad.org
UNIDO, Organización de Naciones Unidas para el Desarrollo Industrial:
www.unido.org
UNDP Inclusive growth <http://www.ipc-undp.org/>
The oil crash <https://crashoil.blogspot.com/>
WEO (World Energy Outlook): www.worldenergyoutlook.org

OHARRAK



A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.